

## ERESIAK ETA HIPUINAK <sup>(1)</sup>

I<sup>koa</sup> NAUSI LAN-GOSEA ETA BERE MUTILERI BIZKARREKO  
LARRUAREN KHENTZAILEA

---

Senar emazte batzu baziren putil batekin, etse bazter batean zaude-  
nak, eta putila gaizki tratatzen zuten.

Aldi batez, bada, mutil bat joan zen etse hartarat buruz eta han  
izaturikako mutil bati erran baitzioin mutil egonketara zohala, hunek  
aiphatu zioin šuhur bazuen etzadiela bere etseko jaun eta andre izan  
zirenekin jar, ezen kondizione tzarretakoak zirela; lana gaitza zela han  
iteko, eta gosiak behaala šahutuko züila.

Gure mutil jarri nahia, ezpaitzen izipera, goan zen eta etseko jaunare-  
kin hitzartu, huna nola: Mutilak in behar züin manatzen zitzaikon  
lan guzia, samurtu gabe, eta samurtzen hazen nausiak igorriko zuela  
bizkarreko larrua khendurik; bardin mutilak in behar tzioin, larrua  
khendu nausiari, hau samurtzen bazen eta behaala nausi jarriko zela  
hunen orde.

Lehenbiziko lanatzat erran tzioin bada nausiak goateko ogi itera eta  
landa batian erein behar züila zaku bat ogi.

Mutilak ildo bat in zuen landan sartzian eta bertze bat itzultzian eta  
bi ildo hetan burrustan ogi bihia erein züin; gero nausiari erran tzioin  
erein züila; nausiak ikhusirik lan ina etzen kontent; orduan mutilak  
galdegin tzioin: «Samur zia? — «Ez ni, eta hi? — «Ni ere ez».

---

(1) Irakhurtzaileek badakikete gure arbrso, ipharraldeko euskaldunek beheinek-  
behin, noizpeiteko gerthakarien aho-mihiz erraitea deitzen zutela *eresia*; gure  
mendeko hegoaldeko euskaldunek, hunelako *eresiari* erraiten diote batzuek *hipuina*,  
bertze batzuek *upuina*.

Bigarren lanatzat erran tzioin nausiak orga bat egur etšeko šušenene-tarik ekhartzeko.

Mutilak zurzturi pultšu bat haizkoraz pikaturik ekharri ziozkin. Nausiak, hura ikhusirik, erran baitzioin: «Hizen bezalakoa! horiek pikatu behar hitiena?» Galdegin tzioin: «Samur zia, nausia? — «Ez ni, eta hi? — «Ni ere ez».

Irugarren lana manatu zioin orga bat egur ekhar tzezola makur makurrenetik.

Mutilak mahastitik pikaturik kargatu züin orga egurra; Orduan nausiak erran tzioin: «Hizen bezalakoa! mahastilik behar hiena pikatu? Mutilak galdegin tzioin: «Samur zia, nausia? — Hunek ihardetsi zioin: «Ni ez eta hi? — «Ni ere ez».

Laugarren lana matatu zioin idi behiak, aihekaik in gabe eta jelaik ideki gabe pentzean sartzeko eta alhaazteko.

Mutilak haizkoraz hilik, eta puskakaturik, besainka ardiki zitüin pentzerat. — Nausiak orduan ere beriak erran haitziozkin, mutilak galdegin tzioin: «Samur zia, nausia? — «Ni ez, eta hi? — «Ni ere ez».

Lan behar gabeko hauk putilak in ondoan, senar emazteek elkhar aitu zuten igorri behar zutela hura Tartaroen oihanerat, erosi zuten šerri multsu baten alhaazterat; nausiak ez paitzuen harekin burutzen ahal, uste züin hala igorririk Tartaroetarat eta hejiek garbituko zioitela mutila.

Goaten da bada mutila eta, bidian dohalarik, atzemaiten du emazteki bat, saski bat gasna kargarekin, eta harri erraiten dio nola dohan Tartaroen oihanerat, ezkurrerat, zerri gizentaazteko; emazteki hunek urrikari züin, eta galde eginaren gainian eman tzioin gasna heze bat. Mutilak gasna hau hartzen du eta papoan sartzen du.

Bigarren emazteki bat topatzen du eta erraiten dio: «Zer duzu hor zuk?» — «Usuak»; eta huni ere galdegin baitzioin usu bat; khendu zioin eta papuan sarthu.

Hirugarren emazteki bat, hariz kargaturik atzeman baitzüin eta hunek pentsaturik gehiago etzioila haririk emain, hari hailgu mutilak galdegin tzioina eman tzioin.

Handik laster, sarthu zen bada mutila Tartaroen oihanean eta libratu zitüin zerriak.

Tartaro batek, orduan berian ikhusi haitzüin, hurbildu zitzainkon eta galdegin tzioin: «Zertarat heldu hiz hunat putil?» — Zerri gizentaazterat, ezkurrerat. Tartaruak badio orduan: «Nahuka zoinek harri bat hobeki porroska? » — «Baha, hik hire harri, nik nere harri»; Tartaruak harri zabal gaitz bat hartzen du eta ardikitzen harroka bati buruz eta zartakatzen du; mutilak bere šaindan gasna botatzen dio harrokari eta bere hura zaflatu duelarik badio Tartaruari: «Hik pus-

katu bai, bainan nik izerdia iauzaazi baitiot ene harriari». Hortan ere irabazia bazüin bada mutilak.

Tartaroak gero erraiten dio, heja nahi züin zoinek urrunago harri bat botat; mutilak ihardesten dio: — «Baha, hik hire harri, nik ene harri». Tartaroak lehenik ardikitzen du harri handi bat; mutilak ondolik usoa libratzen du: usua ezpaitzen lurrerat erori, irabazi zuen bada pario hau ere.

Tartaroak indarka uste baitzüin eramain tzioila, galdegin tzioin heja nahi züin fhalangan jokatu. — «Baha», erranik mutilak, Tartaruak hor ardikitzen du urrun, airean, berrogoita hamar liberako fhalanga tipi bat. Mutilak bada bazakien Tartaroak haüdiak zitüila hauzoko etse batian eta oihuka hasi zen: «Bide! Bide! hartarako etsekoak!». Tartaruak galdegin tzioin heja zer in gogo züin — «Nahi dut etse hertara buruz ardiki fhalanga»; hori aiturik, bere haüdientzat beldur baitzen, irabazitzat utzi tzioin pariuat.

Handik ondoan Tartaruak aiphatu zioin heja hari nahi zuenez phago ondo zoinek beria lasterrago atherako züin; — «Baha» mutilak erranik, Tartaruak bat gaitza erroetarik athera züin. Orduan berian mutila hasi baitzen bere hariaz inguruko phago ondoen lotzen, Tartaruak, beldurrez bazka zerrientzat falta dakion, garaitia utzi zioin mutilari.

Azkenean gonbidatu züin Tartaruak mutila afaritarat eta bere efsean sartu ta suja pištu züin; hara orduko, mutila ohartu zen simini azpian gizon espaldak eta iterrak dilingan Tartaruak bazitüila; beldurturik garbituko züila, ongi mijatu züin, ohera gabe, lo iteko eskhaini zainkon ganbara, eta ohe azpian gizon bat hila atzeman baitzüin, hura ohe gainean ezarririk, bera ohe azpian faratu zen.

Gau minean bada Tartaruak hiru aldiz fhalangaz jo züin bere ustez ohian lo zagoena, erraiten züilarik: «Ez dautak bada berriz pariorik, irabaziko!»

Argitu ondoan, mutilak, sukhaldera jautsirik, erran tzioin Tartaruari lo in tzüila bainan iduritu zainkola gatuen edo arrotain zenbeiten azta par zirrista batzu aitu zitüila.

Haukien ondoan, Tartaruak ikhusi haitzüin ezin garhait zezakeela mutila, manatu züin zohala handik bere zerriak harturik, eta hain bertzenarekin galdegin tzioin nola ezagutuko zitüin bere zerriak — «Aise!» dio mutilak, «ene zerriek dute huztan azpian zilo hat edo bi zilo»; eta halakoetarik baitziren guziak, berriak eta Tartaruarenak arrunt ereman zitüin mutilak eta saldu merkatuan bat salbu; beretzat ere gelditu zitüin bertze zerrien buztanak.

Etserakoan zerri hau eta buztanak sarthu zitüin basa batian eta gero handik athera zitüin bere nausiaren laguntzarekin.

Ederki jokhatu zen bada, ordu arte, eta baliatu zen mutila; halere nausia etzen samurtzerat lerratzen.

Nausiak azkenekotz manatu zioin jeikitzeo kukujak hiruretan jotzen züilarik; etzin zen bada mutila hamar oinetan.

Hamekoinetako mutilak hor aitzen du kukujak jotzen düila lehenbiko aldiko; gau-herditan jo züin bigarren aldiko eta handik laster jo haitzün hirugarren aldiko, bere bi tiro tako şışpa harturik bi tiro emaiten diozki piko gainian zagoen kukujari eta hor hiltzen du.

Hainbertzenarekin nausiak erasiaka galdegin baitzoin mutilari: « Gaistoa alaina! zertako tiratu diot ene emaztiari eta hura hil?

Mutilak ihardetsi zioin: «zer, atzo hamaroinetan etzin, eta egun » hamekoinetan, eta gero gau-herditan jeiki ezтитеkeena da hola irautia.»

Azken-azkenekotz samurtu baitzitzainkon nausia, behaala mutilak bizkarreko larrua khendu zioin eta haren orde nausi jarri zen.

Urriaren 20<sup>an</sup> 1888<sup>an</sup>, Hirigaray, J. Zuhaidarrak berak erraiten zautan bezala nik iskiribatua da eresi hau.

J.-B. DARRICARRÈRE.



## Wentworth Webster

Les études basques ont fait récemment une grande perte: M. Webster vient de s'éteindre à Sare, où il s'était fixé depuis de longues années. Ce savant modeste et laborieux, venu par hasard dans le Labourd et séduit par le charme étrange de cette contrée, voulut y finir ses jours. Très aimé, très estimé de tous ceux qui l'ont connu, il a droit pour ses travaux à la reconnaissance des Basques.

Lettré et fort cultivé, collaborateur de nombreuses revues, il se tenait au courant des principales manifestations littéraires de son époque. Outre de nombreux articles et une part de collaboration très active à l'édition de la «Grammaire Cantabrique» de Pierre d'Urte, les Basquissants lui doivent un volume très remarquable: «Les loisirs d'un étranger au pays basque». Je signalerai, dans cet excellent recueil, comme devant être relus et médités, les chapitres sur les pastorales, sur les inscriptions, ainsi que la dissertation préliminaire, qui contient beaucoup de définitif, sur l'ensemble de la question euskarienne.

M. Webster sera vivement regretté de tous ceux qui ont à cœur l'étude du plus curieux et du plus sympathique des peuples.

G. L.